

POS-F25

*PD en Estudios sobre Desarrollo***"GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GIZARTE-ZERBITZUEN KOOPERATIBIZAZIOARI BURUZKO AZTERKETA"**

Eusebio Lasa Altuna

EHU-ko Doktoradutzako ikaslea

Ikerketa gaia: Ikerketa-lan honetan aztertu nahi dugu zein den Gipuzkoako Foru Aldundiko (hemendik aurrera GFA) Gizarte Politika Departamenduko arduradun politiko eta teknikoen pentsamoldea lurralde horretako gizarte-zerbitzuen horniketa kooperatibizatzeke aukeraren aurrean. Ikerketa hau aukeratzeko bi arrazoi nagusi egon dira. Alde batetik, gaurkotasun handiko gai baten aurrean gaude. Gizartean asko eztabaidatzen ari da zein izan behar den estatuaren eta merkatuaren papera gizarte-zerbitzuak hornitzeko garaian. Estatua hornitzaile nagusia izan behar al da edo zerbitzu hauek pribatizatu egin behar dira gero merkatuak eskaintzeko. Gainera, krisi ekonomikoak ere areagotu egin du eztabaida hori eta tesi neoliberalen aldetik planteatzen ari den irtenbide nagusi bakarra zerbitzu horien pribatizazioa bultzatzea da. Dena dela, bi estrategia posible hauek ez dute argitzen zein izan behar den gizarte zibilaren papera gizarte-zerbitzu hauek ematerako garaian, bereziki hiritarren parte hartzea eta konpromisoa handitzeko eta sakontzeko. Dударik gabe, hirugarren sektoreak eta bereziki, kooperatibek, paper garrantzitsua jokatu dezakete gizarte bizia eta autogestionatua sortzeko.